



ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Goikoetxea.

Auzoa, udalerrria: Santiagomendi., Astigarraga.

Dolarearen kokapena: Baserriaren lehen solairuan, eraikinaren ipar-mendebaldeko nbazterrean. Upelategia eta tina behe solairuan zituen.

Jabea: Pako Elizondo.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XIX. mendekoa.

Iraunaldia: Badira 50 bat urte ez dutela sagardorik egin.

Zenbait datu: Etxerako egiten zuten batik bat baina soberakina saldu egiten zituzten. Azken urteetan behintzat ez zuten urtero egiten, bi urtero-edo, baizik.

Egungo erabilera: Bere horretan dago, hutsik baina txukun.

Kontserbazio egoera: Ona.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutitutako burdinazko ardatz bakarra du, goiko erdian hariztatua. Burdinazko palanka bidez eskuz eraginda mugitzen da ardatzean zehar burua, zintzilik duen zurezko urka barne. Tamaina handikoa zurezko aska soliba edo azpi sunbilek eusten dute. Behe solairuaren sabaian azpi sunbilak ikus daitezke. Baita ardatza eusten duen urkaren antzeko egurra eta torlojua ere.

Dolarearen osagarriak:

- Bi inertzia-bolante handi dituen matxaka, eskuz eragiten dena.
- Barrika bat.
- Hainbat zare eta kizki.
- Alboko gelan pats-zuloa, junteatutako harlangaitzez mugatutako lau zulo errektangeluarrez osatua.

Argazkiak: 07.01, 07.02, 07.03.

GAKO-HITZAK

Eskuzko trakzioa, zurezko aska, matxaka, Astigarraga.

OHARRAK

Erakusketa moduan du, bai tolarea, bai etxea bera.

GALDETEGIA

Informatzailea: Pako Elizondo.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabide.

Datu bilketa data: 2010eko martxoaren 15a